

El blog de la librería

Erreseina: BITAKORA KAIERA

 31/01/2017

Otras entradas



Reseña: ZONA DE OBRAS



BITAKORA KAIERA (Ibon Sarasola, Erein, 2016 Donostia)

Ezagutuko duzu Ibon Sarasola (Donostia 1946). Euskadi Irratian entzuten duzu goizetan, agian. *ZEHAZKI* hiztegi entzutetsuaren egilea izan zen 2005ean. Baina literaturari buruzkoak ere idatzi ditu aspalditik. Baina bere lan zentralena izan da *OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA* zuzentzea.

Egin daiteke liburu honen bestelako iruzkin bat. Baina nik, liburu saltzaile gisa, bi erantzun bilatu ditut liburu honetan. Lehena da: **norentzako da interesgarria BITAKORA KAIERA?** Hiru publiko potentzial ditu. Lehena da ni bezalako jendea:

euskara ikasten ari dena. Umetan euskararekin harremanik izan duena. Ez dakiena euskara batua nola sortu zen. Zeintzuk diren euskara batua sortzeko pasadizoak, historia eta istorioak, une kritikoak, kasualitate positiboak. Bigarren irakurle potentziala da berrogei urtetik beherako euskalduna (berdin euskaldun zaharra izan ala eskolan euskaldundu dena). Eta hirugarrena berrogei urtetik gorakoa: alegia, euskara batuaren prozesua ezagutu zuena. Zeren ezagutu arren liburu honek klabe estrategiko berriak emango dizkio.

Bigarren galdera da: **zer eskainiko dio liburu honek irakurleari?** Adibide batekin erantzungo dizuet. Ibon Sarasola dibulgatzaile handi bat da. Bill Bryson izan daitekeen bezalakoa. Brysonekin berdin zaizu hitz egiten dizun munduaren eta bizitzaren sorreraz, Shakespearez ala Australiaz. Bada Sarasola antzekoa da. Esplikatuko dizu zergatik esaten dugun *krokodilo* eta ez *kokodrilo*, zergatik *iritzi* eta ez *eritzi*, *batzuk* eta ez *batzu*. Zergatik agertu diren *sukaldatu* (48.or.) edota *oparitu* bezalako aditzak. Ze ibilbide dialektal egin duten *emendakin* bezalako hitzek: Iparraldean gehigarri edo eranskin esan nahi zuten, baina zuzenketa (gaztelaniazko enmienda) gisa zabaldu dira azkenean (52.or.).

Bada hau da liburuan topatuko duzuna. Hau eta, noski, batuaren eta euskalkien inguruko iritzi probokatiboak (73.or), euskarazko ekoizpenean oinarritutako argudiaketekin. Ezinbestekoa egungo euskararen inguruko eztabaiden mapa bat izateko.


German Esparza

07/02/2017



Reseña: MI DIETA COJEA

06/02/2017



Reseña: DOCTOR KRUPOV

30/01/2017

LIBRO:



Bitakora kaiera

ISBN	978-84-9109-153-
Páginas	0
Año	160
Editorial	2016
Estado	Erein
Sección	Disponible
	Narrativa / Euskal Narratiba

14,00 €

 [COMPRAR](#)



eseña: LA POLÍTICA EN EL OCASO DE LA CLASE MEDIA

26/01/2017

Berriro irakurri ditut orain liburu hau osatzen duten lau atalak. Iruditu zait bere hartan uzteko moduan daudela, zuzendu ditudan huskeria batzuk gorabehera. Aldatu dudana izenburua da. Kontuak garbitzen nuen pentsatua, baina testua berrirakurri ondoan ez zait egokia iruditu. Berez, kontu garbitze bat da liburua, bai, baina neure buruarekikoa. Eta izenburuak ez du hori iradokitzen.

[Leer más \[+\]](#)



Katakarak Liburuak

Enlaces

Horarios



En Katakarak las únicas cookies no son las de chocolate y nueces. Nuestra web también utiliza cookies

Katakrakeko cookie bakarrak ez dira txokolate eta intxaurrezkoak. Gure webguneak cookie-ak erabiltzen

ditu

[De acuerdo](#) | [Ados](#)

[Más información](#) | [Informazio gehiago](#)